

I. ERANSKINA

| HAUR HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLORAKO ETA LEHEN HEZKUNTZARAKO JARRAIBIDEAK | |
|--|---|
| IKASPOSTUA ESKATZEA | <ol style="list-style-type: none"> Ikastetxeek eskabide orriaren fotokopia zigilatua emanen diote eskatzaileari, eskabidea zein egunetan sartu den adierazita duela. Aurreinskripzioa egiteko eskabidearekin batera, erroldatze ziurtagiria edo bolantea aurkeztu behar da. Bertan, gutxienez ere, ikaslearen izena eta aitaren eta/edo amaren edo legezko tutorearen izena agertuko dira eta helbide horretan bizi behar dira dagokion puntuazioa lortzeko. Ikastetxeek EDUCA bidez sartuko dituzte eskabide guztiak aurreinskripzioa egiteko epean, puntu guztiak beteta dituztela. Nahitaez igorri eta jakinarazi behar da matrikularako aurreikuspena horretarako ezarritako epean, EDUCA programako "Ikastetxearen eskaintza (VII. eranskina)" delakoaren bitartez. |
| ESKABIDEAK AURKEZTEA ETA BANATZE ETA DIBORTZIO EGOERAK | <p>Eskabidea baliozkotzat eta eraginkortzat joko da ondoko kasuetako bat gertatzen denean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bi gurasoek sinatu dute. • Gurasoetako batek bakarrik sinatu du, baina <i>Zin eginez aitortzen dut gurasoak/tutoreak ados gaudela eskabide honekin</i> laukitxoa markatu du. • Gurasoetako batek bakarrik sinatu du, baina <i>Aitortzen dut gurasoak/tutoreak banatze, dibortzio edo desadostasun egoeran gaudela eta ebazpen judiziala edo indarreko agiria ematen dut, non ondorioztatzen den soilik niri dagokidala erabakitzea semea/alaba zein ikastetxetan eskolatu</i> laukitxoa markatu du, aipatutako agiriak eman ditu eta agiri horietatik erabakia soilik berari dagokiola ondorioztatzen da. Agiri horietatik ez bada ondorioztatzen erabakia soilik berari dagokiola, eskabidea tramitatuko da banatze, dibortzio edo desadostasun egoeretan ikastetxeek nola jardun behar duten arautzen duten jarraibideetan eskolatzeari buruzko zatian (1. atala) ezarritako irizpideen arabera ulertu badaiteke bi gurasoek onartzen dutela, eta egoera hori emandako agiriekin egiaztatu bada. • Beste edozein kasutan, eskatzaileari eskabidea osatzeko eskatu beharko zaio, ematen zaion epean ez badu egiten, eskabidea balio gabetuko dela ohartaraziz. |
| POSTA KODEA | <ol style="list-style-type: none"> Eskatzailearen helbidearen posta kodea eta eskatzen den ikastetxearena kode bera izan beharko dira, irizpide osagarri horren bidez eskatzaileari 0,5 puntu eman ahal izateko. Errolda ziurtagirian edo bolantean, helbide hori ohiko helbide gisa agertu beharko da, gutxienez ere, 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen. Ikastetxean ikasleak bi egoitza desberdinetan, bata bestearen ondoren, eskolatuz gero, bi posta kodeak hartuko dira kontuan. |
| JAIEGUNAK | <ol style="list-style-type: none"> Ebazpen honen II. eranskinean adierazitako datak aginduzkoak dira. "Bukaera egunen bat" jaieguna bada ikastetxe batean, jai ez den hurrengo egunera aldatuko da, eta behar duen publizitatea emanen zaio. |
| IRIZPIDE OSAGARRIAK | <ol style="list-style-type: none"> ___/2015 Foru Aginduak, 2. oinarriko 4. idatz-zatian ezartzen duen gisan, ikastetxe bakoitzeko organo eskudunak gehienez ere puntu bat ematen ahalko du beste irizpide osagarri batzuentatik. Ikastetxeek EDUCA bidez igorri beharko dituzte irizpide osagarri hauek Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusira, behin baino ez eta 2015eko urtarrilaren 29ko 14:00ak baino lehenago, hark gainbegira ditzan. Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusiak ikastetxeei jakinaraziko die, EDUCA bidez, proposatu dituzten irizpide osagarriak onartu edo baztertu egiten dituen. |
| IKASLEAK ONARTZEKO BAREMOA | <ol style="list-style-type: none"> Jendaurrean egon beharko dute, bai barematzeko irizpideek, bai erreklamazioen bat egin ahal izateko ezarri den prozedurak. Dokumentuz egiaztatzen ahal diren irizpideak bakarrik onartuko dira baremorako. 2013. urteko lanbidearteko gutxienezko soldata urtean 9.034,20 eurokoa da. Errenta aitortpena aurkeztuz gero, baliozkotze mekanikoaren kodea daraman ale |

| | |
|--|--|
| | <p>bat izan beharko du. Kontuan izanen da likidazio oinarrian azaltzen den kopurua.</p> <p>4. EDUCAk horietako bakoitzari esleituko dizkion errenta tarteak eta puntuazioa ondokoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Per capita errenta, lanbidearteko gutxieneko soldataren erdia (4.517,10 euro) edo txikiagoa bada: 1,5 puntu. • Per capita errenta, lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia baino handiagoa, eta lanbidearteko gutxieneko soldataren hiru laurden (6.775,65 euro) edo txikiagoa bada: 1,0 puntu. • Per capita errenta, lanbide arteko gutxieneko soldataren hiru laurden baino handiagoa, eta lanbidearteko gutxieneko soldata (9.034,20 euro) edo txikiagoa bada: 0,5 puntu. • Per capita errenta lanbidearteko gutxieneko soldata baino handiagoa bada : 0 puntu. <p>5. Urritasun maila, %33koa edo handiagoa, dokumentu hauetako baten bidez frogatuko da:</p> <p>a) Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSO) edo autonomia erkidegoko organo eskudunak emandako ebazpena edo ziurtagiria. (Gaur egun, Nafarroan, Gizarte Politiketako Departamentua da organo eskuduna).</p> <p>b) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (INSS) ebazpena, ezintasun iraunkor osoagatik, erabateko ezintasun iraunkorragatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioduna dela adierazten duena.</p> <p>c) Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren edo Defentsa Ministerioaren ebazpena, lanerako ezintasun iraunkorragatik edo lanerako desgaitasunagatik erretiro pentsioa aitortzen duena.</p> <p>6. Legez familia ugariko kide dela egiaztatzeko, horretarako ezarritako titulu ofiziala aurkeztuko da.</p> <p>7. Eskaerak hartzeko epea bukatu, ez da baremoan eragin dezakeen dokumentazio gehiago onartuko.</p> <p>8. Onartuen behin-behineko eta behin betiko zerrendak EDUCAtik ateratako eredia erabiliz emanen dira aditzera, eta ikastetxeko toki ageri batean erakutsiko dira.</p> <p>9. Zerrendak argitaratu aurretik, ikastetxeek onarpena EDUCArekin bidez jakinarazi beharko dute.</p> |
| <p>PER CAPITA ERRENTAREN KALKULUA, IKASLEAK ONARTZEKO BAREMORAKO</p> | <p>1. Ondorio hauetarako, familia unitatearen errentatzat joko d(ir)a likidazio oinarri guztizkoa(k) (Nafarroan, errenta aitopeneko 525 laukitxo).</p> <p>2. Ondorio hauetarako, familia unitateatzat joko dira familia bateko kideak, errenta aitopeneko lehenengo orrian daudenak (aitopenaren egilea, ezkontidea eta PFEZaren gaineko foru araudian ezarrita dauden terminoetan murrizketarako eskubidea duten pertsonak).</p> <p>3. Ondorio hauetarako, familia unitatearen per capita errenta kalkulatu da likidazio oinarri guztizkoa (atal honetako 1. puntua) zati familia unitateko kide kopurua eginez (atal honetako 2. puntua).</p> |
| <p>GIZARTE ETA KULTURA EGOERA AHULEAN DAUDEN IKASLEENTZAKO ERRESERBA</p> | <p>1. Erreserbatutako ikaspostu horiek eskuratu ahal izateko, ezinbestekoa da herriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen txostena aurkeztea.</p> |
| <p>BESTE ERRESERBA BATZUK</p> | <p>1. Ikasleak atzerriko hizkuntza bat ikasteko mugi daitezela errazteko, ikastetxeek hori dela eta ikastetxera joaten ez diren ikasleak beren ikaspostuetan matrikulatuta mantenduko dituzte, gehienez ere, ikasturte batez. Epe hori bukatuta ikaslea ez bada ikastetxera itzultzen, zegokion ikaspostua galduko du.</p> <p>2. Behin matrikulatu ondoren, aurreko puntuan aipatzen den kasuan dagoen ikasleak ikastetxeari egoera hori jakinarazi beharko dio, baita joanen den ikastetxearen izena, herria eta herrialdea ere.</p> |
| <p>JENDAURREKO ZOZKETA</p> | <p>3. Jendaurreko zozketa egin behar duten ikastetxeek hura zein egun, ordu eta tokitan egingen den garaiz adieraziko diote Eskolatzeko Bulegoari. Zozketa</p> |

| | |
|---|---|
| | <p>gutxienez ere ikastetxeko zuzendariaren/titularraren aurrean eginen da, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua bertan dela.</p> <p>4. Jendaurreko zozketa egiteko prozedura:</p> <ol style="list-style-type: none"> Zozketan parte hartuko dutenekin zerranda bat prestatuko da eta haietako bakoitzari zenbaki bat emanen zaio, batetik (1) hasi eta N arte (N parte-hartzaile kopurua da). Zerranda zenbakidun hori zozketa hasi aurretik jarriko da jendaurrean. Gutun-azal edo poltsa zabal eta opaku batean sartuko dira paper edo bola zenbakituak, hasi batetik (1) eta N arte (zozketatu beharreko eskabide kopuruak aginduko du). Jarraian, bakoitzean paper edo bola bat aterako da. Ateratako paperaren edo bolaren zenbakiak esanen du zerrendako zein pertsonak lortu duen ikaspostu hutsa. Urte berean jaiotako anai-arreben eskaeren kasuan, Hezkuntzako kontseilariaren _____ren ____(e)ko ____/2015 Foru Aginduaren 2. oinarriko 8. idatz-zatian ezarritakoari jarraituko zaio. Ikaspostu huts guztiak esleitu ondoren, prozedura berarekin segituko da itxaron zerranda prestatzeko, zozketako parte-hartzaileen zerranda agortu arte. Zerranda hau erabiliko da esleitutako ikaspostuei uko egiten bazaie. Aurreko prozedura osoaren akta idatzi, eta hartan erregistratuko da zozketaren emaitza. Zozketa bukatuta, haren emaitzaren arabera eratuko da onartu direnen zerranda. |
| BEHIN-BEHINEKO ZERRENDARI EGINDAKO ERREKLAMAZIOAK | <p>1. Zer ikastetxetan egin den aurreinskripzioa, hango zuzendari/titularrari zuzenduko zaizkio behin-behineko zerrendari egiten zaizkion erreklamazioak, ebazpen honen II. eranskinean ezarritako epeko azken eguneko 14:00ak baino lehen.</p> |
| AGIRIAK | <p>1. Ikasle berriek ikastetxe batean matrikula egiteko honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, bai epe arruntean eta berezian, bai ikasturtea hasita sartzen direnean:</p> <ol style="list-style-type: none"> Familia liburuaren edo jaiotza agiriaren fotokopia eta, ikastetxeak erka ditzan, jatorrizko agiriak. Txerto txartela edo zein txerto dosi hartu dituen edo zein osasun azterketa egin zaion adierazten duen beste agiri mediko bat. Osasun txartelaren fotokopia. Egindako osasun azterketen txostenak, ikasleak urritasunik, eritasunik edo ikastetxeak jakin beharreko beste osasun arazorik baldin badu (txosten audiometrikoak, otorrinologikoak, oftalmologikoak eta abar). Erroldaren ziurtagiria edo bolantea aurreinskripzioaren orriarekin batera aurkeztuko da ikastetxean, horretarako ezarritako epeetan. <p>2. Eskabide eta matrikulazio tramiteei dagozkien prozesu eta dokumentu guztietan, ikaslearen izen-deiturak bat etorriko dira familia liburuan agertzen direnekin.</p> |
| EPE BEREZIA | <p>1. Herraldez edo bizilekuz aldatu direlako epe arruntean eskabidea egin ez zuten ikasleek <u>soilik</u> izanen dute aukera eskabidea epe berezian aurkezteko.</p> <p>2. Bizilekuz aldatu dela egiaztatzeko erroldatze agiri edo bolantea aurkeztu beharko da, eta bertan egiaztatu beharko da epe arrunta amaitu ondorengo datarekin eman duela alta bizileku berrian.</p> |
| EPEZ KANPO ESKOLATZEA | <p>1. Ikaspostua eskatzen ahalko duten ikasle bakarrak izanen dira epe arruntaren eta bereziaren ondotik bizilekuz aldatu direlako ikastetxe berria behar dutela justifikatzen dutenak. Egoera horren egiaztariak aurkeztu beharko dira.</p> <p>2. Ikastetxe guztiek eman eta jasoko dituzte eskabideak, ikaspostu hutsak izan edo ez, eta tramitatu eginen dituzte behar diren oharrekin, Hezkuntza Departamentuari ikasle horiek eskolatzen laguntzarren.</p> |

KOMUNIKAZIO BIDEAK

- Helbide elektronikoa: nescolar@navarra.es
- Gurasoei eta ikasleei informazioa eta aholkua ematea: 848 42 66 17
- Tramitazio eta onarpen kontuak, ikastetxeentzat: 848 42 69 77
- Eskolatzeko Arloko koordinatzailea: 848 42 32 12
- FAXa: 848 426987